

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 2308

*EBAZPENA, 2018ko apirilaren 19koa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria-rena, jendaurrean jartzen duena honako establezimendu honen Kanpoko Larrialdi Plana: DBA Bilbao Port S.L. (Zierbenako Udalerria).*

Jendaurrean jarri behar da gai arriskutsuak dituzten establezimenduen Kanpoko Larrialdi Plana, baldin eta gai arriskutsu horien kopurua 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskineko 1. eta 2. zatiko 3. zutabearen zehaztutakoa edo handiagoa bada, betiere Istripu larrietan gai arriskutsuak tar-teko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartu zituen irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren 13, 15 eta 16. artikuluan ezarritakoa eta Istripu larrietan gai arriskutsuak tar-teko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten Autonomia Erkidegoko organoak zein diren zehaztu zuen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuaren 3. artikuluko f) eta k) letretan ezarritakoa aplikatzeko.

Industrialariak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bidez bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, beste erakunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin lankidetzan, instalazio honen Kanpoko Larrialdi Plana egin du: DBA Bilbao Port S.L. (Zierbenako Udalerria). Bada, jendaurrean jarri behar da plana, 20 egun baliodunez.

Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa betetzeko, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Zierbenako udalerriko DBA Bilbao Port S.L. establezimenduaren Kanpoko Larrialdi Planaren proiektua, 20 egun baliodunez, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita, egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Kanpoko Larrialdi Plana eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (La Torre eraikina, Forondako atea 41, Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara (La Torre eraikina, Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz). Sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean zehaztutako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 19a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,  
PEDRO ANITUA ALDEKOA.